



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urriaren 6a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren karietara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan. Mozioa Erretiratzea (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, bulego judicial berriari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (9. or.).

- Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezeko heliportu bat aurreikusi Nafarroako Ospitalean, dagoena erabili ezinik utzi duten obrak hasi aurretik, Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria eta Hezkuntzako kontseilaria kargutik kendu izanari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Vinsak, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzailea den aldetik, etxebizitza horiek eraikitzekeo ardura esleitzen dien enprekin ezartzen dituen akordio, konpromiso edo protokoloen buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).
- Galdera, gaixoak laguntza espezializaturara igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoaren lurralde oreka eta landa garapena ahalbidetzeko

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan Parlamentuan foru erkidegoko landa garapena eta lurralde oreka ahalbidetuko dituen foru lege proiektu bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu foru lege proiektuan kontuan har dezan lurraldeen arteko desoreka egoeran edota hutsik geratzeko arriskuan dauden, zerbitzu publikoak eskuratzeko zailtasunak dituzten edo aukera sozioekonomiko urriak dituzten eskualdeen mapa. Halaber, foru lege proiektu horretan konpromisoak eta neurriak aurreikusi beharko dira, epe ertainean egoera hori aldatu ahal izateko eta berdintasuna lortzeko foru erkidegoko gainerako biztanleekin, eskubideei, zerbitzu publikoak eskuratzeari eta etorkizuneko aukerei dagokienez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zorrotz kontrola ditzan herri lanetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zorrotz kontrola ditzan obra publikoetako enpresa esleipen-hartzaileak egiten dituzten azpikontratazio prozesuak. Horrekin lotuta, aipatu prozesu horien justifikazioa oinarritu ahalko da soilik kasuan kasuko herri lanaren garapena hobetuko duten arrazoi teknikoetan. Era berean, eskatzen den kontrolaren xedea izanen da azpikontratazioaren alorrean eta lan arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden araudiak betetzen direla bermatzea, eta bermatzea, halaber, betetzen direla enpresen erantzukizun sozialari buruzko gomendio eta zuzentarauak, hitzarmen kolektiboen edukia eta langileen esku-bideak eta horien aurreikuspen soziala arautzen dituzten alor soziolaboraleko gainerako arauak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar ditzan herri lanen sektoreko enpresa nafarren lehiakortasuna sustatzeko, hobetzeko eta areagotzeko politikak, administrazio publiko desberdinen egiten dituzten esleipen-prozeduretan aukera gehiago izan ditzaten, beren lan-zama eta jarduera maila areagotze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoen behar bezalako sendotasuna bideratzeko zerga arloko neurriak ezartzearen aldeko konpromisoa agertzen du, zerbitzu publikoen eta herritarren ongizatearen progresioa ziurtatze aldera, egoera ekonomiko zehatzen ginetik.

2. Nafarroako Parlamentuak zerga-gehikortasunean sakontzeko konpromisoa agertzen du, zerga-politikak aberastasuna banatzeko egiazko tresnak izan daitezen ahalegintzeko borondatea eta justizia sozialaren aldeko apustua.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren kariatara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren kariatara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Stockholm Programaren kariatara Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako mozioa

1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du, oso-osorik, zioen azalpenean aipatzen den mozioa, Diputatuen Kongresuan aurkeztu eta aho batez onetsia.

"1. Egin beharreko zuzemenak egitea, hurrengo Stockholm Programan –Hagakoa ordeztu du, eta Europar Batasunaren lehentasunak jasotzen ditu askatasunaren, segurtasunaren eta justiziaren arloan– ebazpen bat jaso dadin, helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen egoera Europar Batasunarentzat lehentasun handikoa izate aldera.

2. Protokolo bat ezartzea, Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuarekiko elkartasun eta lankidetzaren esparruaren baitan, aukera berriak ireki ahal izate aldera helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen etorrerak eragindako egoera berezi edo salbuespenekoei aurre egiteko, haienganako laguntza hobetzeko erantzun koordinatua ziurtatzea helburu.

3. Gobernu Zentralea eta autonomia erkidegoko gobernuak koordinatzeko tresnak ezartzea, beste autonomia erkidego batzuetako barnetegi-tatik datozen etorkinen etorrera behar bezala egiten dela ziurtatzeko, kontuan hartuta harrerako

zein diren autonomia erkidegoak dituen baliabideak. Politika horrek bereziki eraginen dio helduen laguntzarik gabeko haurren harrerari, Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak eskatzen duenari jarraikiz haurraren interesa aldeztarren.

4. Garapenerako lankidetzaren inplikazioa indartzea Afrikako kontinentean; hartara, lankidetzara eta garapenera bideratutako funtsak areagotuko dira –halako moduz non hango biztanleei enplegu duina lortzeko aukera gehiago emanen zaien eta emigratzeko gaur egun duten premia larria gutxituko den–, haien produktuen merkatu-ratzea erraztuko da, haien zorra arinduko da, demokraziaren finkatzean sakonduko da eta haien garapena sustatuko da, halatan giza baliabideen galera ekiditeko. Herrialde horietako adingabeentzako zentroak jarriko dira abian haien babesa ziurtatze aldera, eta, horretarako, garapenera bideratuko da gure aurrekontuaren zati bat.

Adingabe horiek beren familiekin jaioterrian berriz biltzea sustatzea, edo haien herrialdeetako erakunde nazionalen tutoretzapean jartzea."

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du arlo horretako eskumena duten ministerioek –Osasun eta Gizarte Politikakoa eta Lan eta Immigrazioakoa– bere gain har dezaten helduen laguntzarik gabeko haur etorkinen immigrazioaren eta laguntzaren arloan dagoen ardura eta Kanarietako Erkidegoari laguntza eraginkorra eman diezaioten adingabe horiek penintsulara ekartzeko; hartara, berreskuratu beharreko eskumenak berreskuratuko ditu, Kanarietako Erkidegoak eta gainontzeko autonomia erkidegoek jarri dituzten eragozpen tekniko eta juridikoak gainditzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du immigrazio arloko politika integral bat baliatzean, baita adingabeen immigrazio arloan ere, eta amaiera eman diezaion Kanarietara etorkinak samaldaka etortzeak dakarren genozidioari, gero eta gehiago baitira txaneletan datozen adingabeak, eta gero eta handiagoa, orobat, hildakoen kopurua. (Kanarietako Autonomia Erkidegoko Gobernuak emandako datuen arabera, 6.000 pertsonatik gora hil dira azken bost urteetan itsasaldietan, eta ez dakite horietako zenbat ziren adingabeak).

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura alda dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berrikus dezan, eta, kasu bada, alda dezan Lodosa eta Sartaguda lotzen dituen NA-6221 errepidea zabaltzeko trazadura, zeina iragaten baita Oroimenaren Parkearen eta Sartagudako industrialdearen artean dagoen trazadura beretik.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Kultura eta Turismo – Vianako Printzea Erakundearen Departamenturen logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har dezan Europako Kontseiluko Ministro Batzordeak Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Karta betetzearen gainean emandako txostena."

Legebiltzarrak 2009ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 15eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 25ean egindako bileran, erabaki zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari, aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta aukera

berdintasunari buruzko Foru Lege proiektu bat aurkez dezan".

Mozio hori 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, bulego judizial berriari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bulego judizial berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Lehendakari-tza, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak onetsi zuen 2009-2012 urteetarako Justizia Modernizatzeko Plan Estrategikoa betearazteko aurreikuspena dela eta, eta kontuan hartuta beharrezkoa dela Bulego Judiziala deiturikoa ezartzea, galdera honi erantzutea nahiko nuke:

Aurreikuspenen arabera, non eta noiz jarriko da abian bulego judizial berria?

Iruñean, 2009ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezeko heliportu bat aurreikusi Nafarroako Ospitalean, dagoena erabili ezinik utzi duten obrak hasi aurretik.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik ez den ordezeko heliportu bat aurreikusi Nafarroako Ospitalean, dagoena erabili ezinik utzi duten obrak hasi aurretik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena:

Goizuetan gertaturiko larrialdi baten balizko kudeaketa okerra dela-eta izandako salaketan aurrean –gaixoa hil egin baitzen–, Osasuneko kontseilariak iragarri zuen barne-ikerketan bat abian jarriko zuela departamentuan, jakiteko zergatik ez zen helikopteroa erabili aipatu larrialdian.

Hala ere, departamentuaren aurreikuspen falta eta osasun alorreko plangintza falta izan dira ekarri dutenak gaur egun helikopteroa egiazko eragin-

kortasunez ez erabiltzea larrialdietako osasun arloko garraioetan.

Badira sei hilabete Nafarroako Ospitalean heliporturik ez dagoela, ospitaleko eremuan egiten ari diren obra batzuen ondorioz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak jakin duenez, Osasun Departamentuak uste du heliportua ez dela funtzionamenduan izanen urtebete barru baino lehenago.

Laburbilduz, osasun alorreko larrialdietan ezin da erabili Nafarroako Ospitaleko heliportua, eta, horren ondorioz, atzerapen handiak izan daitezke ahalik eta arintasun handienaz eman behar den zerbitzu bat, hots, larrialdietako osasun arloko garraioa, ematerakoan.

Nafarroako Ospitaleko heliportuaren ordezkari gertuen dagoena Miluzeko basean da. Helikopteroaren erabilera eskatzen duen larrialdi bat gertatzen denean, base horretara joan behar du anbulantzia medikalizatuak medikua eta harekin batera doazenak igo daitezkeen, helikopteroa medikalizatu ahal izateko.

Eta helikopteroa ez da ospitalera itzultzen, Miluzeko basera baizik. Han zauritua edo gaixoa helikopterotik jaitsi eta anbulantzia medikalizatura eraman behar da, bertan sartu eta ospitalera eramateko. Laburbilduz, ez dirudi prozedura hori egokiena denik, premiazkoa denean gaixoa ospitale batean artatzea.

Zergatik ez da ordezeko heliportu bat aurreikusi Nafarroako Ospitalean, dagoena erabili ezinik utzi duten obrak hasi aurretik? Heliportua noiz egonen da erabilgarri?

Iruñean, 2009ko urriaren 2ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria eta Hezkuntzako kontseilaria kargutik kendu izanari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria eta Hezkuntzako kontseilaria kargutik kendu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzutako honako ezohiko galdera aurkeztu du, urriaren 8rako eta 9rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaun txit garaiak erantzun dezan:

Zure ustez justifikagarria, arduratsua eta herriarrentzat onuragarria al da Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilaria eta Hezkuntzako kontseilaria kargutik kendu izana alderdien arteko ika-mika baten ondorioz?

Iruñean, 2009ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Vinsak, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzailea den aldetik, etxebizitza horiek eraikitzeke ardura esleitzen dien enpresekin ezartzen dituen akordio, konpromiso edo protokoloei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 24an egindako bileran, erabaki zuen Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkezturiko galdera, Vinsak, babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzailea den aldetik, etxebizitza horiek eraikitzeke ardura esleitzen dien enpresekin ezartzen dituen akordio, konpromiso edo protokoloei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko maiatzaren 18ko 46 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko irailaren 24an egindako bileran, erabaki zuen Asun Fernández de Garaialde andreak aurkezturiko galdera, gaixoak laguntza espezializatura igortzeko eta bolanteak egiteko irizpideei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2009ko maiatzaren 18ko 46 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda